

2. IRUNGO BERDINTASUN-DIAGNOSTIKOA

Ondorengo orrialdeetan hainbat adierazle bildu dira, Irungo emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspegi integralagoa izateko helburuarekin. Tokiko administrazioaren egoerari buruzko diagnostikoa da, nahiz eta hiriaren egoera testuinguratzen laguntzen duten zenbait aspektu ere jasotzen diren.

Irungo Udalak 2012an egin zuen II Berdintasun-planaren ebaluazioa. Aztertu dugun, eta ondorioz, diagnostikoa egin ahal izateko erabilitako informazioak ebaluazio horretan du jatorria; informazio hau, erakunde ezberdinek emandako datuekin osatu da: Udala, Eustat, Emakunde, Aldundia... eta azken diagnostikoan jasotako datuekin alderatu da baita ere.

Gauza jakina da berdintasuneranzko aldaketak epe ertain-luzean ematen direla eta datuak ez direla gehiegi aldatzen hamarkada batean. Hala ere, eremu zehatz batzuetako datuetan joera-aldaketak ikus daitezke. Horregatik, datu horiek aurreko diagnostikoan eskuratutakoekin alderatu dira. Bereziki, enpresa edo erakunde bezala Udalaren egoera zein den islatu nahi izan da, berdintasun-parametroak txertatuz bere funtzionamendua aldatu baitu. Gobernantzaren helburua garbi izatea, erakundeetatik aldaketa bultzatzeko gakoetako bat da. Hasierako egoera kontuan izanda, bere garapena nolakoa izan den aztertu ahalko da aurrerago.

Atal hauhiru atalek osatzen dute. Lehenengoak, sarrerak, irakurlea Irungo egoera sozioekonomikoan kokatzeko helburua du. Bigarrenak, udalaren funtzionamenduari dagokiona, gobernantza-motari eta bere mailari lotutako adierazleak, zein arlo bakoitzean genero-ikuspegiaren txertatzea norainokoa den erakusten dutenak biltzen ditu. Azkenik, hirugarren atalean, Irungo berdintasunerako lan-batzordeari egiten zaio erreferentzia. Amaitzeko, diagnostikoaren ondorio orkorak jasotzen dira.

Aurrekariak

- 2001. Irungo Emakumeentzako Ekintza Positiboko I. Udal Plana onartzea, 2001-2005 epealdirako.
- 2002. Urte honetatik aurrera, Gizarte Ongizatearen Arloan berdintasunari loturiko ekintzak aurrera eramateko izan duen teknikari bat egon da.
- 2007. Irungo gizon eta emakumeen egoerari buruzko diagnostikoa osatzea. Horretarako, 3 mailatan lan egin zen: 1) populazioari orokorrean egindako inkesten bidez; 2) parte-hartze prozesuaren eta herri-kontsultaren bidez; eta 3) DELPHI metodoaren bidez, udal barruko eta kanpoko berdintasunerako adituen proposamenak bilduz.
- 2007. II. Berdintasun Plana idaztea. EAeko IV. Berdintasun Planaren irizpideetan oinarritu zen.
- 2011. Irungo Hiri Debekatuaren Mapa egin zen.
- 2011. Irungo emakumeei buruzko liburua argitaratzea.
- 2012. II. Berdintasun Planaren ebaluazioa egin zen.

Berdintasun politiken arau-markoa

- **1979ko abenduko NBE Batzar Orokorra:** Emakumearen kontrako bereizkeria-era guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa.
- **1999ko maiatzaren 1eko Amsterdamgo Ituna:** Emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna Europako funtsezko oinarri bilakatzen da, Batasunaren izaeraren ezaugarria.
- **Euskadiko Autonomi Estatutua:** 9.1 artikuluan, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatuturaren 9.2d artikulua herri-aginteei pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hroi lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dutela, adierazten du.
- **1988an Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea:** Lehen mailako gaitzat jo zuen emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzea eta emakumeek gure erkidegoko alor guztietan esku hartzeari bultzatza egiteko beharrezkoak izan daitezkeen neurriak hartzea; halaber, bere gain hartu zuen arlo horretan ekintza bateratuari indar egiteko lana ere. Eusko Jaurlaritzak ekintza positibo bost plan onartu ditu jadanik EAEn. Hauek jasotzen dituzte toki, lurralde eta autonomia mailan aurkera-berdintasuna sustatzeko jarraitu beharreko lan-ildoak.

Legedia

- Abenduaren 28ko **1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko Babesa emateko Neurriak buruzkoa.**
- Otsailaren 18ko **4/2005 Legea, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako.**
- Martxoaren 22ko, **3/2007 Lege Organikoa, Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunaren Aldekoa.**

2.1. Irungo biztanleriaren ezaugarri nagusiak

Irungo populazioa, sexuaren arabera


	GUZTIRA		Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Irun	61.122	100	31.253	51	29.986	49

	GUZTIRA		Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Bidasoa Beherea	76.342	100	38.860	50,9	37.482	49,1
Gipuzkoa	702.897	100	358.185	51,0	344.712	49,0
EAE	2.174.033	100	1.112.697	51,2	1.061.336	48,8

Iturria: Irungo Udala, 2013ko urtarrilaren 1ean.


- Irun 61.122 biztanletako hiria da (2012ko errolda), horietatik 31.253 emakumeak eta 29.986 gizonak dira.
- Irungo populazioaren erdia emakumeak dira (%51,1); gizonak populazio osoaren %48,9 dira.
- Emakume gehiago daude gizonak baino, nahiz eta aldea oso txikia den.
- Gizonak baino emakume gehiago egotea ohikoa da; joera bera ikus daiteke eskualdean, lurraldean eta baita erkidego mailan ere. Arrazoi ezberdinak daude oinarrian: besteren artean, emakumeen bizi-itxaropen altuagoa eta arriskuko ekintza gehiago praktikatzearen ondoriozko gizonen heriotz-tasa altuagoa (nahiz eta azken hamarkadetan arriskuko ekintzak ugaritzen ari diren emakumeen artean).
- Eskuragarri dauden Bidasoa Behereako, Gipuzkoako eta EAEko datuek (Eustat, 2011) joera bera erakusten dute.

Populazioaren garapena azken 30 urteetan



- Irungo populazioa hazi egin da azken 30 urteetan.
- Irungo biztanle-kopurua hazi egin da 2000. urtetik hona.
- Populazioaren eboluzioak erakusten duenez, azken hiru hamarkadetan gizon baino emakume gehiago egon dira.


Populazio-piramidea



Iturria: Irungo Udala, 2013ko urtarrilaren 1ean


- Irungo populazio-piramidea erregresiboa da. Erdiko atala baino estuagoa den oina eta erlatiboki altua den adinekoen portzentajea dauzka. Zahartutako populazioa da, jaiotze-eta heriotz-tasa baxuekin, eta hazkunde natural murriztuarekin. Hala ere, azken 10 urteetan joera-aldaketa bat nabari daiteke, jaiotze-tasaren hazkundeari lotuta.
- Irungo populazio-piramidea, trantsizio demografikoa burutu duten arren azken belaunaldiak oraindik bertan jarraitzen duten herri garatuetana bezalakoa da.
- 65 urtetik gorakoen artean emakume gehiago daude gizonak baino.
- Populazioaren zatirik handiena 30 eta 60 urte artean kokatzen da.

Populazioaren banaketa auzoaren arabera



Iturria: Irungo Udala,
2013ko urtarrilaren
1ean


Irungo jatorri kanpotarreko pertsonak



Iturria: Irungo Udala, 2013ko urtarrilaren 1ean.

- Irungo herritarren %8,5ak jatorri atzerritarra du.
- Jatorria erkidegoz kanpokoak duten herritarrak Europako Erkidegoan dutenak baino gehiago dira.
- Atzerrian jaio diren Irungo pertsonen gehiengoak jatorri latinamerikarra du.

Irungo populazio atzerritarren jatorrizko herrialde nagusiak



Iturria: Irungo Udala, 2013ko urtarrilaren 1ean.

Erregistratutako langabezia

	GUZTIRA		Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Irun	5.093	100,0	2.798	54,9	2.295	45,1
Bidasoa Beherea	5.978	100,0	3.320	55,5	2.658	44,5
Gipuzkoa	46.006	100,0	24.147	52,5	21.859	47,5
EAE	164.126	100,0	83.883	51,1	80.243	48,9

Iturria: Lanbide, 2012ko 3. hiruhilekoa.

Lan-bila dauden pertsonak

	GUZTIRA		Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Irun	5.545	18,1	3.068	21,3	2.477	15,3
Gipuzkoa	50.472	14,4	26.431	16,0	24.041	12,9
EAE	178.004	16,4	90.376	17,8	87.628	15,2

Iturria: Lanbide, 2013ko otsaila.


Bataz besteko errenta pertsonala

Portzentajearen zutabeak bataz bestekoaren desbiderazioa adierazten du.

	Bataz bestekoa		Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Irun	17.546	0	12.523	-28,6	22.891	30
Bidasoa Beherea	18.342	0	13.307	-27,5	23.649	29
Gipuzkoa	20.270	0	14.811	-26,9	26.049	29
EAE	19.631	0	14.242	-27,5	25.376	29

Iturria: Eustat, 2009.

Gizarte Segurantzako afiliatze-erregimena



Lan erreproduktiboei eskaintako denbora


Orduka eta minutuka	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Otorduak prestatu	1,07	0,38	1,31
Lanegunak	1,07	0,36	1,3
Ostiralak	1,03	0,33	1,28
Larunbatak	1,09	0,42	1,29
Igandeak	1,13	0,44	1,36
Garbiketa	1,05	0,49	1,1
Lanegunak	1,06	0,49	1,11
Ostiralak	1,03	0,43	1,1
Larunbatak	1,04	0,52	1,09
Igandeak	1,03	0,49	1,09
Arropak	0,48	0,27	0,53
Lanegunak	0,49	0,28	0,54
Ostiralak	0,46	0,19	0,52
Larunbatak	0,43	0,26	0,47
Igandeak	0,49	0,31	0,55
Bestelako konponketak	0,18	0,25	0,16
Lanegunak	0,18	0,23	0,16

Orduka eta minutuka	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Ostiralak	0,18	0,23	0,16
Larunbatak	0,19	0,26	0,16
Igandeak	0,24	0,36	0,19
Erosketak	0,49	0,44	0,52
Lanegunak	0,48	0,46	0,48
Ostiralak	0,53	0,48	0,56
Larunbatak	1,03	0,53	1,11
Igandeak	0,17	0,14	0,22
Kudeaketa	0,5	1,03	0,37
Lanegunak	0,49	1,04	0,35
Ostiralak	0,58	1,16	0,43
Larunbatak	0,46	0,35	1,03
Igandeak	0,3	0,4	0,12
Erdi-aisiak	1,48	2,02	1,37
Lanegunak	1,46	2	1,36
Ostiralak	2	2,26	1,42
Larunbatak	1,48	2,13	1,25
Igandeak	1,45	1,4	1,51

Iturria: EUSTAT. Denbora-aurrekontuen inkesta.2008


2.2. Berdintasuna Irungo Udaletxean, orokorrean eta arloz arlo

Sexuaren araberako osaera



- Osaera ez da parekidea. Emakumezko baino gizonezko gehiagok lan egiten dute Udalean.
- Hurrengo orrialdeetan arloaren eta kategoriaren araberako banaketa ikusiko ditugu.

Langileen banaketa kategoriaren eta sexuaren arabera



Iturria: Irungo Udala (2013)

- Osaera ez da parekidea. Ikusten denez, emakumeen kopurua altua da kategoria batzuetan, eta beste batzuetan gizonena.
- Emakumeen nagusigo garbia duten kategoriei dagokionez, B kategoria bere osotasunean emakumez osatua dagoela ikus daiteke. A2 eta C1 kategoriek emakume kopuru altua daukate euren baitan.
- C2 kategoriak du gizonen kopuru altuena: osatzen duten langileetatik 132 gizonak dira eta 19 emakumeak.
- A1 kategoriak ere gizonezkoen kopuru altuagoa (%60) du emakumezkoena baino (%40).
- Orokorrean, **goi-kategorietan (A1) eta behe-kategorietan (C2) gizonezkoen nagusigoa nabarmena da. Kategoria ertainek (A2, B eta C1) emakumeen kopuru altuagoa daukate.**

Oinarrizko berdintasun-irizpideak arloz-arlo

Berdintasunerako zer neurri hartzen dira?						
	Trebakuntza berdintasunean	Parte-hartze sozio-politiko parekidea	Hizkuntzaren erabilera barneratzailea	Kontziliazio-neurriak	Genero-ikuspegiaren txertaketa oinarrietan	Datuak sexuaren arabera banatuta
Informazioaren gizarte herritarren parte-hartzea	✓	✗	✓	✓	--	✓
Ogasuna, sustapen ekonomikoa eta plan estrategikoa	✓	--	--	✓	--	✓
Euskara	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Kultura eta kirola	✗	✗	✓	✓	✓	--
Gizarte ongizatea, hezkuntza eta gazteria	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Hirigintza eta ingurumena	✗	✓	✓	✓	--	--
Mugikortasuna, bide publikoa eta obrak	✗	--	--	✓	--	--
Udaltzaingoa	✗	--	--	✓	✗	--

Iturria: II Berdintasun Planaren ebaluazioa (2012)

Oharrak:

- ✓ Baieztatzen duten datuak daude
- ✗ Ukatzen duten datuak daude
- Ez dago daturik

Sexuaren arabera banatutako datuak jasotzen dira?

Sexuaren aldagaia Biztanleen Erroldako Estatistika Kudeatzailean txertatuta dago 2005etik, populazio- eta lurralde-azterketa guztietarako, baita, Udal Informazio Sistemako Hirugarren Basean oinarrituriko kudeaketa egituretan ere.

2010. urtetik aurrera Udalak egindako estatistika, inkesta eta datu-bilketa orotan sexuaren aldagaia kontuan hartzen da.

Iturria: II Berdintasun Planaren ebaluazioa (2012)

Genero-ikuspegia irizpidetzat hartzen da diru-laguntzak ematean, lehiaketetan eta kontratazio berrietarako oinarrietan?

Deialdi guztiek ez dute genero-ikuspegia kontuan hartzen.

Kontratazio berrietarako oinarriei dagokionez, emakumeen ordezkartza %40aren azpitik dauden kolektiboen kasuan, enplegu publikorako eskaintza bakarra egin da, Udaltzaingoan. Bertan, ez zen emakumeen lehentasuna berdinketa hausteko irizpidetzat hartu.

Modua gerikoan ez aipatu arren, 6/1989 Legea, Funtzio Publikokoa, hartzen da kontuan, 27.2 artikuluan jasotzen duen bezala. Berau Udalean edo beste edozein Erakunde publikoetan egiten diren hautatze-prozesuetan aplikatzen da.

4/2005 Legea ez da zehazki gai zerrenda orokorretan sartzen. Gizarte Langileen 2011ko Deialdiko gai zerrendan 4/2005 Berdintasun Legea sartu zen.

II Planaren ebaluaziorako Berdintasun Batzordeko lantaldeak udal kudeaketa osoan genero-ikuspegia txertatzeko beharra ikusten du.

Iturria: II Berdintasun Planaren ebluazioa (2012)

Gizon eta emakumeen behar eta interes ezberdinak kontuan izaten dira?

Arlo ezberdinek beraien jardunean genero-ikuspegia txertatzeko aholkularitza jaso dute noiz edo noiz.

Hauek dira aipatutako arloak: Euskara, Gazteria, Kirola, Kultura, Pertsonala, Hirigintza eta Obrak.

Iturria: II Berdintasun Planaren ebaluazioa (2012)

Genero-ikuspegia txertatu ahal izateko trebakuntza zehatza jaso da?

Planak iraun dituen lau urteetan, ikastaro bakarra egin da 2011ko Trebakuntza Planaren baitan, “Genero- mainstreamingaren aplikazioa udaleko lan-arloetan” izenburupean.

15 emakumezko eta gizonezko bat bertaratu ziren eta Udaleko arlo batzuk soilik hartu zuten parte bertan.

Berdintasun Batzaordeak teknikarien zein politikarien inplikazio handiago baten beharra ikusten du.

Iturria: II Berdintasun Planaren ebaluazioa (2012)

Emakumeen parte-hartzea bermatzeko neurri zuzentzaileak hartzen dira?

Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze sozio-politikoaren bultzatzeko trebakuntza, informazioa eta diru-laguntzak eskaini zaizkie emakume -elkarteei.

Urte hauetan, Udalaren eta Emakumeen Elkarten arteko elkarlanaz 11 ekintza egin dira. Horien artean daude, elkarrekin egindako hainbat ekintza informatibo, prentsaurrekoak adibidez, Emakumeen Elkarten inguruan herritarrek duten ezagutza hobetzeko.

Iturria: II Berdintasun Planaren ebaluazioa (2012)

Berdintasunerako bidean aurrera egiten duten ekintzak eta ekimenak sustatu eta bultzatzen dira?

Alkatetzatik, aurrekontu bidez, berdintasunarekin lotura duten zenbait ekintza bultzatzen dira.

Iturria: II Berdintasun Planaren ebaluazioa (2012)

Familia, lana eta bizitza pertsonala bateratzeko neurriak daude?

Bai, Planaren lau urteetan zehar ondoko neurriak hartu dira:

- Sartzeko ordutegi malgua, 9:00ak arte.
- Lanaldiaren murrizketa, seme-alabak zaintzeko.
- Seme-alabak zaintzeko eszendentzia.
- Seme-alabak zaintzeko soldatarik gabeko baimena.

Neurri hauek hartzen dituzten langileen datuei erreparatzen badiegu, gehiengo handi bat (%81.3) emakumeak direla ikusiko dugu. Gizonek gehien hartzen duten neurria sartzeko ordutegi malguarena da.

Iturria: II Berdintasun Planaren ebaluazioa (2012)

Hizkuntza ez-sexista erabiltzen da?

II Planaren ebaluazioan jasota dagoen bezala, barne-komunikazioetan (Pertsonal eta Antolakuntzako argibideak, trebakuntza-ekintzen planifikazioari buruzko informazioa) eta kanpo-komunikazioetan hizkuntzaren erabilera zaintzen da.

Ebaluazio honen arabera, bereziki zaintzen dira web orriko elementu komunikatibo idatziak eta bisualak.

Berdintasun Batzordeko lantaldeak beharrezkoa ikusten du Udaleko komunikazio- eta informazio-sistemen hobekuntza.

Iturria: II Berdintasun Planaren ebaluazioa (2012)

Planaren garapena eta zeharkakotasunaren bermea ziurtatzeko arloen arteko egiturak daude?

Maila teknikoan

Ez da Batzorde Teknikoa eratu. Berdintasun Batzordeak udal arlo ezberdinetan berdintasunaren eremuko erreferenteak ezarri eta arloen arteko berdintasun batzorde bat sortzea beharrezko ikusten ditu.

Ebaluazioaren txostenak jasotzen duenez, 26 pertsonak (22 emakumek eta 4 gizonek) osatutako lantaldeek berdintasunaren eremuan lan egin dute ondoko arloetan:

Gizarte Ongizatea, Hezkuntza eta Gazteria

Kultura eta Kirola arloa

Euskara arloa

Horretarako inolako egiturari kez badago, hainbat arlok batera egin dute lan, bereziki Genero Indarkeria Prebenitzeko Planari dagokionez, ildo horretan lan egin dute herritarrekiko harremanez arduratzen diren arloak eta udaltzaingoa, antolakuntza, gizarte ongizatea eta alkatetza. Debekatutako Hiriari buruzko Mapa garatzeko Gizarte Ongizateren eta Hirigintza eta Obra arloaren artean.

Maila politiko-sozialean

Ahalduntze-eskolan 13 ikastaro eman dira 2008 eta 2011 artean, eta guztira 207 emakumek parte hartu dute.

Berdintasun Batzordeak 11 bilera egin ditu 2008 eta 2011 artean.

Udalbatzetan parte hartu duten emakume kopurua 9 eta 11 artekoa izan da lau urte hauetan. Tokiko Gobernu Batzordean 5 emakumek parte hartzen dute.

Iturria: II Berdintasun Planaren ebaluazioa (2012)

2.2.1. Informazioaren gizartea eta Herritarren parte-hartzea

ONARRIZKO BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Sexuaren arabera banatutako datuak jasotzen dira?

Ez dago datu zehatzik, baina 2010. urtetik aurrera Udalak egindako estatistika, inkesta eta datu-bilketa orotan sexuaren aldagaia kontuan hartzen da.

Genero-ikuspegia irizpidetzat hartzen da diru-laguntzak ematean, lehiaketetan eta kontratazio berrietarako oinarrietan?

Ez da ezartzen arlo honetako diru-laguntzetan (Auzo-elkarteak), ezta Erosketa eta Ekipamenduetarako hornigaien erosketan. Ez dakigu nola aplikatu daitekeen.

Gizon eta emakumeen behar eta interes ezberdinak kontuan izaten dira?

Ez da arloan egiten den lan osoan zabalduetako praktika sistematizatua.

Genero-ikuspegia txertatu ahal izateko trebakuntza zehatza jaso da?

Informazioaren gizarte eta herritarren parte-hartze arloak eta herritarren arretarako zerbitzuak "Genero- mainstreamingaren aplikazioa udaleko lan-arloetan" trebakuntza jaso dute.

Emakumeen parte-hartzea bermatzeko neurri zuzentzaileak hartzen dira?

Berdintasun Batzordeko lantaldeak emakumeen parte-hartze eta ordezkartza handiago baten beharra somatzen du arlo guztietan, eta espazio publikoaren bereganatzea proposatzen du emakumearen ikusgarritasuna handitzeko bidean.

Herritarren parte-hartze arloaren ustez, emakumeen parte-hartzea esanguratsua izan da kopuru eta ekarpen aldetik azken 18 hilabeteetan garatutako prozesuetan. Arazoa gazteen parte-hartzean ikusten dute.

Berdintasunerako bidean aurrera egiten duten ekintzak eta ekimenak sustatu eta bultzatzen dira?


Ez zehazki, ezta arlo honetatik ere.

Hizkuntza ez-sexista erabiltzen da?

Informazioaren Gizarte eta Herritarren Parte-hartze Arloaren baitan Herritarren Informazio eta Arreta Zerbitzua aurkitzen da, zeinak Udalak bere eskura dituen bide ezberdinetatik komunikazio ugari garatzen dituen. Komunikazio hauetan hizkuntza ez sexistarako irizpideak sistematizatuta daude: izen generiko eta kolektiboak, perifrasi eta eraikuntza metonimikoak... Eta bikoizketak (vascos y vascas) ekidinez, eraginkortasun komunikatibo eta ekonomikoagatik.

EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN PRESENTZIA ARLOAN

Langileen banaketa soldata-kategorien arabera



Iturria: Irungo Udala (2013)

- Arlo honetan 22 gizonek eta 23 emakumek egiten dute lan.
- Udalaren kategorien arabera duten banaketaren inguruan, ondokoa esan dezakegu:
- Arlo honetan, gizonak gehiengo dira A1 eta C2 kategorietan.
- Emakumeak gehiengo dira C1 eta E kategorietan.
- Hortaz, gizonen nagusigoa ikusten dugu A1 (%92) eta C2 (%100) goi-kategorietan, eta emakumeen nagusigoa, berriz, C1 (%78) eta E (%100) behe-kategorietan.

BERDINTASUNAREN ALDE EGINDAKO LANAK

- Komunikazioak bere aurrekontuaren zati bat Martxoaren 8ko eta Azaroaren 25eko Ekintzen dibulgaziorako materialaren ediziora bideratu du.

2.2.2. Ogasun, Sustapen ekonomiko eta Plan Estrategikoa

ONARRIZKO BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Sexuaren arabera banatutako datuak jasotzen dira?

Ez dago datu zehatzik, baina 2010. urtetik aurrera Udalak egindako estatistika, inkesta eta datu-bilketa orotan sexuaren aldagaia kontuan hartzen da.

Genero-ikuspegia irizpidetzat hartzen da diru-laguntzak ematean, lehiaketetan eta kontratazio berrietarako oinarrietan?

Ez.

Gizon eta emakumeen behar eta interes ezberdinak kontuan izaten dira?

Ez.

Genero-ikuspegia txertatu ahal izateko trebakuntza zehatza jaso da?

Ogasunak "Genero- mainstreamingaren aplikazioa udaleko lan-arloetan" trebakuntza jaso zuen 2011n.

Emakumeen parte-hartzea bermatzeko neurri zuzentzaileak hartzen dira?

Ez.

Berdintasunera bideratutako ekintzak eta ekimenak sustatu eta bultzatzen dira?


Ez zehazki. Berdintasun Batzordeak beharrezko jotzen du, arlo ezberdinek berdintasunari eskainiko zaion aurrekontu propioa izatea honen inguruko programa ezberdinak garatu ahal izateko.

Hizkuntza ez-sexista erabiltzen da?

Ez.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA ARLOAN

Langileen banaketa soldata-kategorien arabera



Iturria: Irungo Udala (2013)

- Emakumezkoak nagusitzen dira arloan.

- Goi-kategorian (A1) izan ezik, kategoria guztietan emakumeak nagusitzen dira. A1 kategorian 4 emakumezko eta 4 gizonezko daude.
- Gizonezko batzuk aurkitzen ditugun kategoriak A1 (%50), C1 (%12) eta E (%11) dira.
- Laburbilduz, arlo honetan emakumezkoak nagusitzen dira eta ondorioz, kategoria administratibo guztietan daukate presentzia. Gizonen presentzia handiagoa da A1 goi-kategorian.

BERDINTASUNERAREN ALDE EGINDAKO LANAK

- Irungo 2020 Plan Estrategikoak (2009an idatzia) genero-ikuspegia txertatuta dauka..
- Ogasun arloak "Genero- mainstreamingaren aplikazioa udaleko lan-arloetan" trebakuntza jaso zuen, Planaren hasieratik eskaini dena.
- Ogasuna, Sustapena, Giza Baliabideak eta Informazioaren Gizarteari dagokien batzorde informatiboan soilik %25 dira emakumeak.

2.2.3 Euskara

ONARRIZKO BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Sexuaren arabera banatutako datuak jasotzen dira?

2009-2011 ikasturteaz geroztik, Euskara Arloan aurrera eramaten diren ekintza eta programa guztietako gizonezko eta emakumezko parte-hartzaileen datuak jasotzen dira.

Genero-ikuspegia irizpidetzat hartzen da diru-laguntzak ematean, lehiaketetan eta kontratazio berrietarako oinarrietan?

Orain arte ez da txertatu genero-ikuspegia, baina berdintasun-teknikariari laguntza eskatu zaio irizpide egokiak ezartzeko.

Gizon eta emakumeen behar eta interes ezberdinak kontuan izaten dira?

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ekintza guztiek genero-ikuspegia txertatuta daukate.

Genero-ikuspegia txertatu ahal izateko trebakuntza zehatza jaso da?

Euskara arloaren barruan, solas-jolasen begiraleek trebakuntza zehatza jaso dute berdintasunean. Baita udalerriko 3 euskaltegietako (udalekoak eta AEK) langileek ere.

Emakumeen parte-hartzea bermatzeko neurri zuzentzaileak hartzen dira?

Ez.

Berdintasunera bideratutako ekintzak eta ekimenak sustatu eta bultzatzen dira?


Ez.

Hizkuntza ez-sexista erabiltzen da?

Ez.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA ARLOAN

Langileen banaketa soldata-kategorien arabera



Iturria: Irungo Udala (2013)

- Euskara arloan, emakumezkoak dira gehiengoak.
- Euskara arloan dauden gizonezkoak kategoria altuenetan aurkitzen dira: A1 (%100) eta A2 (%20).

- Emakumeen presentzia nagusi da kategorien gehiengoan, baina azpimarratzekoa da A1 kategoria ez egotea emakumezkoen artean.

BERDINTASUNAREN ALDE EGINDAKO LANAK

- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (2009) ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzea, IRATI aplikazioaren bidez.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna modu batean edo bestean txertatzen duten programak: Gu ere bertotan, Solas-jolas, Estola-kirola, Euskararen hilabetea, Euskaraz Baietz!, Udagirot, Familia Plana, Gurasoen transmisioa, euskararen ataria, Kanean bai, Kiroirun Plana, Irun Irutenekin hitzarmena, Irunero eta euskaltegia.

2.2.4 Kultura eta kirola

ONARRIZKO BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Sexuaren arabera banatutako datuak jasotzen dira?

Tailerrei eta ekintzei dagokionez, sexuaren arabera banatutako datuak biltzen dira.

Genero-ikuspegia irizpidetzat hartzen da diru-laguntzak ematean, lehiaketetan eta kontratazio berrietarako oinarrietan?

Diru-laguntza guztietan ematen den praktika bat ez izan arren, II Planeko balorazioaren arabera, kirol-entitateei kirol-lizentzia gisa ematen zaizkien diru-laguntzetan faktore zuzentzailea (x1,5) txertatzen ari da, diru-laguntzaren kopuruaren balorazio altuago baterako.

Gizon eta emakumeen behar eta interes ezberdinak kontuan izaten dira?

Irunen emakumeen kirol-sekzioa daukaten 60 klub daude. Zentzu honetan, kirolean emakumeen parte-hartzea handitzeko programa zehatzak jarri dira martxan.

Genero-ikuspegia txertatu ahal izateko trebakuntza zehatza jaso da?

Kirol-begiraleek tratua berdintasunean emateko trebakuntza zehatza jaso dute. Oro har, arlo honetako ekintzak genero-ikuspegiarekin garatzeko trebakuntzarik ez da jaso.

Emakumeen parte-hartzea bermatzeko neurri zuzentzaileak hartzen dira?

Emakumeen parte-hartzea kirolean areagotzeko 3 erakunderekin lankidetzeta-hitzarmena sinatu da. Hala ere, jendeak bere atsekabea adierazi du gai honetan eta kirol-gaietan emakumeen parte-hartzea areagotzeko neurrietan sakontzea beharrezkoa dela azpimarratu du.


Berdintasunerako bidean aurrera egiten duten ekintzak eta ekimenak sustatu eta bultzatzen dira?

Ariketa fisikoaren sustapena bideratutako programa espezifikoen bitartez. "Heuk proba ezan" programa, emakumeei zuzendua. Atletismo herrikoia sustatzeko programa, emakume helduei zuzendua

Hizkuntza ez-sexista erabiltzen da? Ez.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA ARLOAN

Langileen banaketa soldata-kategorien arabera



Iturria: Irungo Udala (2013)

- Emakumeek arlo honetako langileen laurdena osatzen dute.
- A1 eta A2 kategoriak soilik gizonez osatuta daude.
- C1 kategorian dagoen gizonen kopurua emakumeenaren bikoitza da.

- C2 kategoriak emakume eta gizon kopuru bera du.
- Emakumeen presentzia soilik arlo honetako behe-kategorietara mugatzen da C1 (%30) eta C2 (%50).

BERDINTASUNAREN ALDE EGINDAKO LANAK

Kultura arloan, udalerriko emakumeen sormen eta produkzio artistiko zein kulturala ikusarazi eta ezagutarazteko ekintzak egin dira. Erakusketak, musika eta antzerkia, esaterako.

Menchu Gal erakusteka-aretoa inauguratu zen, horrela margolari irundarraren lana aitortuz.

Kirolean, kirol-kategoriaz igo diren edo lehia-kirolean emaitza esanguratsuak lortu dituzten emakume-taldeei aitormen publikoak egin zaizkie.

Emakumeen artean ariketa fisikoa sustatzeko programak ere garatu dira.

2.2.5 Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria

ONARRIZKO BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Sexuaren arabera banatutako datuak jasotzen dira?

Program batzuetan bai, baina ez denetan.

Genero-ikuspegia irizpidetzat hartzen da diru-laguntzak ematean, lehiaketetan eta kontratazio berrietarako oinarrietan?

2008az geroztik, Gizarte Ongizate Arloak programen laguntzarako erabili den zenbateko osoaren %20ko gutxienez erabili du berdintasunaren eremuko programarako, eta programa horiek Irungo Emakumeen Elkarteek edo berdintasunaren aldeko programak edo jarduerak dituzten beste elkarteek egiten dituzte.

Gazteria arloak 4 proiektu lagundu ditu diruz.

Garapenerako lankidetzak genero-ikuspegia kontuan hartzen dute 32 proiektu lagundu ditu diruz.

Gizon eta emakumeen behar eta interes ezberdinak kontuan izaten dira

Programak premia hauek kontuan hartuta jartzen dira martxan,

Genero-ikuspegia txertatu ahal izateko trebakuntza zehatza jaso da?

Gizarte Ongizateak "Genero- mainstreamingaren aplikazioa udaleko lan-arloetan" trebakuntza jaso dute.

Emakumeen parte-hartzea bermatzeko neurri zuzentzaileak hartzen dira?

Arloak sustatzen dituen programetan edo jardueretan parte hartzen duen emakume kopurua handia da, eta badira soil-soilik emakumeentzat diren programak ere..

Berdintasunera bideratutako ekintzak eta ekimenak sustatu eta bultzatzen dira?

Arlo honek bere aurrekontuaren zati bat Berdintasun-gaietara bideratzen du. Gizarte Ongizateko programa guztiak hartzen dira kontuan, emakumeei, familiei, adin txikikoei edo gazteei zuzenduta badaude ere.

Hizkuntza ez-sexista erabiltzen da?


Ez da praktika sistematizatua. Nolabait ere jarraibide batzuen falta sumatzen da

¿Pobrezian aurkitzen diren edo prostituzioan dabilzan edo etorkinak edo ijitoak diren edo minusbalotasun bat duten emakumeen eta adineko emakumeen egoeraren inguruko azterketa zehatzak egin al dira?

Plana indarrean egon den epean ez dira azterketa zehatzak egin. Hala ere, Gizarte Ongizate arloak ezagutzen du kolektibo ezberdinen egoera, elkarteen sareari esker; baita Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseiluaren bidez eta honek herritarrekin duen zuzeneko arretaren bidez ere.

ARLOAREN OSAERA

Langileen banaketa soldata-kategorien arabera



Iturria: Irungo Udala (2013)

- Arlo hau osatzen dutenen artean emakume gehiago daude gizonak baino.
- B kateariaren kasua azpimarragarria da, soilik emakumeek osatzen baitute.
 - E kategorian izan ezik, gainontzeko kategorietan emakumeek langileen %60a baino gehiago osatzen dute.
 - Proportzioan gizon gehien duen kategoria E behe-kategoria da, gizonak langile-kopuruaren bi herenak osatzen dituztelarik.

BERDINTASUNAREN ALDE EGINDAKO LANAK

Ahalduntze-eskolak 13 ikastaro eskaini ditu 2008 eta 2011 artean, guztira 207 emakumek parte hartu dutelarik.

Autoestimari buruzko 8 tailer egin dira, eta 176 emakumek parte hartu dute haietan.

Gizonentzeko “Maskulinitate berriak” prestakuntza-tailerrak egin dira, eta 104 gizonak parte hartu dute haietan.

“Hainbat ekintza egin dira udalerriko emakumeen historia bultzatzera, zabaltzera eta bisitaratzera eta, ondoren, “Irungo emakumeen historia” liburuaren argitalpenaren bidez hori guztia zabaltzera bideratuak.

Prestakuntza eta sentsibilizazioa eskaini zaie bigarren hezkuntzako ikastetxeei eta udalerriko 3 euskaltegiei.

“Tratu ona sustatzen” prestakuntza eskaini zaie kiroleko eta denbora libreko monitoreei (Solas Jolas).

Urtero diru-laguntzak ematen zaizkie emakume-elkarteei eta berdintasuna sustatzen duten proiektuei.

Emakumeari eta berdintasunari buruzko web orri bat abian jarri eta lau urtetan garatu da.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzako jardute-gidaliburuak egin eta zabaldu dira.

“Neska-mutilentzako” indarkeria sexistaren aurkako prebenitzio-gidaliburuak egin eta zabaldu dira..

Sentsibilizazio-kanpainak (martxoak 8, azaroak 25..)

“Irungo hiri debekatuaren mapa” partaidetza programa egin eta gauzatu da.

Lankidetzaren arloak informazioa ematen die herritarrei eta sensibilizazio kanpainak egiten ditu veste lurraldeetako emakumeen egoeraren inguruan, era askotako ekintzak egin dira: kanpainak, zinemaldiak, jardunaldiak, erakusketak... 18 ekintza egin dira.

“Berdintasunean Hezitarako Tratu Onak” lemapean egin den Gazteen Osoko Bilkura programa ikasle eta irakasle askok hartu du parte; Plana indarrean egon den 4 urteetan egin da.

Bazterketa-arriskuan edo egoeran dauden emakumeentzako hainbait laguntza eta ekonomia balibide kudeatzen dira: gizarte-larrialdietarako laguntzak, udalaren laguntza ekonomiko bereziak, genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza desintoxikatzekeo prozesuetan gizarteratzen laguntzeko laguntza ekonomikoa.

2.2.6 Mugikortasun, Bide Publiko eta Obrak

ONARRIZKO BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Sexuaren arabera banatutako datuak jasotzen dira?

Mugikortasun orokorrean jasotako datuetan ez dira jasotzen bereizitako datuak.

Genero-ikuspegia irizpidetzat hartzen da diru-laguntzak ematean, lehiaketetan eta kontratazio berrietarako oinarrietan?

Ez.

Gizon eta emakumeen behar eta interes ezberdinak kontuan izaten dira?

Irungo Hiri Debekatuaren Mapa egiteko lan egin da eta jarraipena eman zaio, mapa horretan genero-ikuspegi batetik aztertzen da hirgintza.

Genero-ikuspegia txertatu ahal izateko trebakuntza zehatza jaso da?

Ez.

Emakumeen parte-hartzea bermatzeko neurri zuzentzaileak hartzen dira?

Gaur egun ez dago halakorik. Emakumeek garraio publikoaren eremuan planifikazio, diseinu, eta hobekuntza-prozesuetan parte hartzea beharrezko ikusten du Berdintasunerako Batzordeak.

Berdintasunerako bidean aurrera egiten duten ekintzak eta ekimenak sustatu eta bultzatzen dira?


Ez. Berdintasun Batzordeak beharrezko ikusten du genero-ikuspegia eremu honetan integratzea.

Hizkuntza ez-sexista erabiltzen da?

Ez.

ARLOAREN OSAERA

Langileen banaketa soldata-kategorien arabera



Iturria: Irungo Udala (2013)

- Gizonen nagusigoa argia da arlo honetan.
- Gizonak gehiengoa dira A2, C2 eta E kategoriatan.
- Emakume gehiago daude B eta C1 kategoriatan.

- A1 kategoriak emakume eta gizon kopuru bera du.

BERDINTASUNAREN ALDE EGINDAKO LANAK

Bere aurrekontuko zati bat bideratzen du 2011n eta orduz geroztik, zati bat "Irungo Hiri Debekatuaren Mapa" parte-hartze programatik eratorritako hobekuntzei bideratzea aurreikusi du.

2.2.7. Hirigintza eta Ingurumena

ONARRIZKO BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Sexuaren arabera banatutako datuak jasotzen dira?

Ez da ageri.

Genero-ikuspegia irizpidetzat hartzen da diru-laguntzak ematean, lehiaketetan eta kontratazio berrietarako oinarrietan?

Ez.

Gizon eta emakumeen behar eta interes ezberdinak kontuan izaten dira?

Irungo Hiri Debekatuaren Mapa egiteko lan egin da eta jarraipena eman zaio, mapa horretan genero-ikuspegi batetik aztertzen da hirigintza.

Genero-ikuspegia txertatu ahal izateko trebakuntza zehatza jaso da?

Ez.

Emakumeen parte-hartzea bermatzeko neurri zuzentzaileak hartzen dira?

Gaur egun ez dago halakorik.

Emakumeek hirigintzaren eremuan planifikazio, diseinu, eta hobekuntza-prozesuetan parte hartzea beharrezko ikusten du Berdintasunerako Batzordeak.

Berdintasunerako bidean aurrera egiten duten ekintzak eta ekimenak sustatu eta bultzatzen dira?


Ez. Berdintasun Batzordeak beharrezko jotzen du genero-ikuspegia eremu honetan integratzea.

Hizkuntza ez-sexista erabiltzen da?

Ez modu zehatzen.

ARLOAREN OSAERA

Langileen banaketa soldata-kategorien arabera



Iturria: Irungo Udala (2013)

- Zenbaki absolutuetan ez da alde handirik ikusten arlo hau osatzen duten gizon eta emakumeen artean.
- Gizonak A2 eta C2 kategorietan dira nagusi.
- C1 kategorian emakume gehiago daude.
- A1 kategorian gizon- eta emakume-kopuru bera dago.

BERDINTASUNAREN ALDE EGINDAKO LANAK

Arlo honetan, eta berdintasun arloarekin elkarlanean, “Irungo Hiri Debekatuaren Mapa” egin zen 2011n.




2.3. Herritarrek berdintasunerako politiken inguruan duten iritzia

IRUNEN BERDINTASUNA SUSTATZEKO LANA

Webaren bitartez 42 pertsonak egin dituzten ekarpenetan oinarrituta, herritarrek ez dute ikusten Irunen berdintasunaren aldeko lan handirik egiten denik. Aurreko grafikoan

ikus dezakegunez, erantzunen erdia puntuazio baxuenean kokatu dira, berdintasunaren aldeko lan gutxi egiten dela adieraziz. Zentzu honetan, hainbat pertsonak aitortu dute elkarteek egindako lana, baina udalak egindakoari ez diote aitormenik egin. Hori, egindako lanaren komunikazio ez-eraginkor baten ondorio izan daitekeela uste da; edo Alardearen gaiak herritarren pertzepzioan duen pisuarengatik ere izan daiteke, gainontzeko politika publikoak bere itzalpean geratuko liritezkeelarik. Era berean, aipatu behar dugu galdetegian parte hartu dutenen %74ak Alardearen konponbidean aurrera egiteko konpromiso politikoaren beharra azpimarratu duela, eta Irunen berdintasunaren eremuan dagoen arazo larriena dela nabarmendu dute.




ETORKIZUNEKO IKUSPEGIA

Orokorrean, azpimarratu dira: emakumeen aurkako indarkeria eta horrekin amaitzeko egin beharreko lana, emakumeen ahalduntzea, bateragarritasuna eta herritarren parte-hartzea.


Gizonek genero-indarkeriarekin amaitzeko egin beharreko lana, bateragarritasuna eta herritarren parte-hartzea azpimarratu dituzte.

Emakumeek genero-indarkeriaren inguruan egin beharreko lanketa nabarmendu dute, eta ahalduntzeari, balioen aldatetari, herritarren parte-hartzeari eta bateragarritasunari ere garrantzia eman diote. Emakumeek iruzkindutako gaien artean egon dira baita ere gizarte ongizatea, hirigintza eta mugikortasuna, legea eta administrazio publikoa.

Gizonezkoen etorkizunerako lehentasunak



Etorkizunerako ildoak (emakumezkoen erantzunak)



ALARDEA

Ekainaren 30ean batera existitzen dira San Martzialeko Alardearen ospakizuna ulrtzeko bi modu; bata, tradizionala deitua da, eta bertan, emakumeak kantinera gisa solik hartzen du parte; eta bestea berdintasunaren aldekoa da, eta bertan emakumeak edozein paperetan har dezake parte.

Alarde tradizionala Udalak baimentzen du; bestea, berdintasunaren aldekoa, manifestazio eskubidearen adierazpen gisa egiten da.

Hori horrela, Ikuskizun Publiko eta Jarduera Errekreatiboei buruzko 4/1995 Legeak ezartzen duenaren arabera emandako udal ebazpenaren bitartez, izaera pribatuko Elkarte bati Alarde Tradizionala egiteko baimena ematen zaio.

2008ko maiatzaren 28an Auzitegi Gorenak emandako epai baten bidez ebazpen horren legezkotasuna berretsi zen. Epai horren arabera ez dago sexu-bereizkeriarik Alarde Tradizionala jarduera pribatua delako:

- a.- Alarde hori ospatzeak ez dio inori eragozten bestelako Alardetik antolatzea, hala nahi izanez gero.
- b.- Alarderen baten sustatzaileek definitutako baldintzak ere ezin dira aldatu; baldintzaren bat aldatzeko baimena emateko, Legeak aurreikusten duen supostuetakoren bat gertatu behar da, eta ez da horrelakorik gertatzen kasu honetan.
- c.- Ezin da Alardea egin dadin eragotzi eskatutako baimena ukatzea justifikatuko lukeen arrazoiren bat ez badago 4/1995 Legearen arabera, ez eta Konstituzioan jasotako oinarrizko eskubideen arabera ere.

Udalak dei ugari egin die herritarrei San Martzialeko Alardearen antolakuntzarako begirunea eta askatasuna aldarrikatuz. Ildo horretatik, Udaltzaren Osoko Bilkurak 2013ko maiatzaren 29an egin zuen bilkuran ondoko erabakia hartu zuen:

- 1.- Irungo Udalak begirune eta askatasun printzipioak erreklamatzeko San Martzialeko Alardearen antolakuntzarako.***
- 2.- Irungo Udalak bere begirunea adierazten du Alardea sentitzeko eta bizitzeko modua adierazteko dauden era desberdinekiko.***

3.- Irungo Udalak dei egiten die herritar, elkarte eta erakundeei San Martzialeko Alardea errespetuz eta begirunez gauzatzearren beharrezkoak diren eginahal guztiak egin ditzaten, eta bizikidetzaren normalizatzeko ahaleginak egin ditzaten".

2.4. Etorkizunerako erronkak

Prozesuaren parte bezala, Berdintasun Batzordearekin saio bat egin zen Irunen berdintasunaren egoeraren inguruko informazioa biltzeko. Hauek dira talde-eztabaidetan jaso ziren ekarpenak:

- **MAINSTREAMINGA**
 - Zeharkakotasunak berdintasunaren gaia urteaz dakar, ikustera ez iristea eragiten du.
 - Berdintasunerako ordenantza batek aldaketa suposa dezake, horrekin lege-maila handiagoa hartuko bailuke.
 - Arloen arteko mahai baten sorrera, arlo bakoitzeko teknikarien ordezkaritzarekin, berebizikoa da zeharkakotasunerako.
 - Lege-maila horren beharraren eta nahitaezkotasunaren inguruko zalantzak. Behartu ditzakegu langileak genero-ikuspegiarekin lan egitera? Beharrezkoa ikusten da sentsibilizazioa areagotzea, bereziki arlo maskulinizatuenetan.
 - Gizarte ongizatearen eta hirigintzaren arteko elkarlan-esperientzia oso positiboki baloratzen da. Horrelako esperientziak biralizatu egin beharko lirake eta etorkizuneko esperientziei bide eman.
 - Genero-ikuspegia beti kontuan izateko aukerak: pertsona batzuk beharrezko ikusten dute prozedura guztien genero-ikuspegiari buruzko atal bat izatea. Beste batzuen ustetan, sentsibilizazio egoki batekin ikuspegi hori inpregnatuko da eta atal hori ez da beharrezkoa izango, ikuspegia bere kaxa txertatuko baita.
 - Konpromiso politikoa funtsezkoa da. Udalak bere lehentasunen artean sartu beharra dauka eta udalaren jarduerak herritarren onurarako izan behar luke. Arlo guztiek inplikaturik egon behar dute.
 - Udal arloetako ordezkariek Berdintasun Batzordeko lantaldean egiten den lana barnera dezaten bertan parte hartzeko dinamika berreskuratzea positiboa izan daitekeela baloratzen da.
- **BATERAGARRITASUNA**

- Oso positiboki baloratzen dira bateragarritasun-neurriek ahalbidetzen dituzten aukerak, bereziki emakumeei. Hala ere, neurri hauek erabiltzen dituzten gehiengo emakumeak izateak jarrera kritikoa mantentzea dakar. Zentzu honetan, ikusten da oraindik bide luzea dagoela egiteko.
 - Bizitza pribatuarekin bateragarritasuna bilatzearen inguruan hausnartzen da, eta erantzunkidetzan sakondu behar dela ikusten da. Gai honetan ere sentsibilizazio-lan handia egin behar da.
 - Zentzu honetan eragin dezaketen faktoreak: soldaten arteko aldea, genero-rol tradizionalak, lan-egoera.
 - Sektore pribatuan horrelako neurrien gabeziari dagokionez, Bidasoa Activarekin elkarlanean jardun daitekeela uste da inguruko enpresetan ekimenak bultzatzeko.
 - Ostalaritzako ordutegiek, eta txandek oro har, familia-bateragarritasunerako suposatzen dituzten zailtasunak nabarmendu dira.
- **BERDINTASUN HORIZONTALA ETA BERDINTASUN BERTIKALA**
 - Gai honetan oraindik bide luzea dago egiteko. Diagnostikoan azaleratutako datuek erakusten dute “kristalezko sabaia” errealitate bat dela, goi-kategorietan dauden emakume-kopuru urriak erakusten duen moduan.
 - Diskriminazio positiboa neurri zuzentzaile moduan sartu behar da. Honi dagokionez, bi ñabardura egiten dira:
 - Alde batetik, kuotek dauzkaten mugak, begirada femeninoak eta maskulinoak baitaude gorputz femenino edo maskulinoetan.
 - Bestetik, egungo sistema dugu, gizonak eta gizonentzako sortua. Aldaketarekin horiek galdu egiten dute eta zaila da beraiek hori onartuko luketen sentsibilizazio-maila batera iristea.
- **HERRITARREN PERTZEPZIOA**
 - Oro har, interes-falta sumatzen da herritarrengan, modu eraginkorragoan komunikatzeko beharra ikusten da.
 - Orokorrean, herritarrek ez dute ezagutzen urte hauetan zehar egin den lana.
- **HEZKUNTZA**
 - Hezkuntza-sistemak genero-ikuspegia txertatzeko joera du, baina azken finean irakasleen esku geratzen da.
 - Oso sektore feminizatutzat jotzen da.
 - Ikastetxeetan garatuko diren programek urte osokoak izan behar dute, eta ez dute mugatu behar 5 egun sinbolikoetara.
 - Irakasleekin zein familiekin landu behar da.



- Hezkuntzan programak diseinatzeko orduan, materia-saturazio bat dago. Ez da lehiakorra, eta mugak daude ikastetxe bakoitzeko errealitatearen baitan.
- OSASUNA
 - Zaintza emakumeen esku geratzen da nagusiki eta adineko pertsonak ere emakumeak dira nagusiki.
 - Gizarte-zerbitzuekin koordinazio-falta genero-indarkeria detektatzen den kasuetan.
 - Osasun-zerbitzu “unibertsalaren” okerragotzea eta bere pribatizazioranzko trantsizioa. Eskura dauden baliabideen eta gizarte-bazterketan dauden emakumeen eta sexu-langileen egoeraren inguruko hausnarketa sakon bat egiten da.